

**1. ATALA: *EUSKARAREN PRESENTZIA*  
*LEKU PUBLIKOETAN***

Atal honetan, Getxoko kale eta leku publikoetako ahozko eta idatzizko euskararen erabilpena aztertuko da.

## **1.1.- EUSKARAREN PRESENTZIA MINTZATUA**

### **1.1.1.- HELBURUAK**

Neurketa honen helburua, Getxoko kaleko hizkuntz-erabilpenaren berri izatea da, jendea euskaraz ala erdaraz ari zen neurtu dugularik.

Helburu orokor honen azpian beste azpichelburu hauek ditugu:

- Zonaldekako desberdintasunak jasotzea
- Adin-mailako desberdintasunak jasotzea.
- Giroen arteko desberdintasunak jasotzea.

### **1.1.2.- NEURKETARAKO METODOLOGIA**

Neurketaren bidez jaso ditugun datuak azaldu baino lehen, argibide metodologiko batzuk emango ditugu. Modu honetan, aurrerantzean neurketaldiak irizpide berdinez egin ahal izango dira, konparagarritasuna gordez eta urtez-urteko bilakaera aztertu.

#### **A). NEURKETALDIAK**

5 neurketaldi burutu ziren:

- |                       |                 |
|-----------------------|-----------------|
| - Asteazken eguerdia: | 1etatik 3etara  |
| - " arratsaldea:      | 6etatik 8etara  |
| - Larunbat goiza:     | 11etatik 1etara |
| - " arratsaldea:      | 6etatik 8etara  |
| - Igande goiza:       | 12etatik 2etara |

Neurketa honako 3 egunetan egin zen:

- Otsailak 23 (asteazkena)
- Otsailak 26 (larunbata)
- Otsailak 27 (igandea)

## **B). ZONALDEAK**

Neurketa egiteko 5 zonaldeetan banatu da herria:

- Areeta: Kale Nagusia, Klub, Las Mercedes...
- Erromo: Gobelaurre, Gorbea, Luis Lopez, Kresaltxu, Alde Zaharra...
- Andra Mari: . Astegunetan: Getxoko Aingerua, Maidagan, Iturribide  
. Asteburuan: Maidagan
- Algorta1: Sarrikobaso, Ollarretxe, Aldapa, Saldisu Etorb. Txomin Iturrate...
- Algorta2: . Asteazken eta larunbat goiza: Algorta Etorb., Basagoiti Etorb., Amezti...  
. Igande goiz, larunbat arrats.: Portu zaharra, Algorta, Basagoiti Etorb.

## **C). NEURKETA-SISTEMA**

Zonalde bakoitzean neurtzaile bat ibili zen. Denetara 5 pertsona beraz.

Neurtzaile bakoitzak, ibilbide eta ordu horietan kalean entzundako pertsona guztien datuak fitxa-eredu batean bildu zituen.

Neurtu direnak mintzakideak izan dira, elkarrizketan ari ziren pertsona guztiak.

Pertsonaren adina gutxigorabehera hartu da, noski.

## **D). UNIBERTSOA**

1991ko zentsuaren arabera Getxoko zuzenbidezko biztanleria 79.954 pertsonatakoa da.

Kontutan izanik neurketan entzun direnak 10.467 gertaera linguistiko izan direla (%13.1), esan daiteke lortutako datuen fidagarritasuna ona dela.

### 1.1.3.- EMAITZA OROKORRAK

Lehen datu orokorra hau da:

Entzundako pertsonak	10.467
Euskaraz ari zirenak	297
%	2,8

Konpara dezagun datu hau ezagupen-mailarekin:

Euskaraz dakitenak	14,3
Kaleko erabilpena	2,8

Datu honek euskarak Getxon bizi duen errealitatearen lehen informazio esanguratsua eskaintzen digu. Euskara Getxon "latentzia" egoeran dagoela esan genezake, bere erabilpena agerikoa baino, ezkutukoa dela alegia.

5 euskaldunetatik, bakar bat ari da euskaraz une berean Getxoko leku publikoetan. Honek noski ez du esan nahi besteek ez darabiltenik, batezbeste kalean euskaldunek euskaraz %20 egiten dutela baizik.

Datu orokor horren azpian ordea, beste datu interesgarriak antzeman daitezke. Ezagut ditzagun:

#### 1.1.4.- ADINAREN ARABERAKO ERABILPENA

	ZENBAT PERTSONA	ZENBAT EUSKARAZ	%	Ezag.	Erab. Ind.
Haurrak (0-14) . . . .	2.129	92	4,3	23,2	18,5
Gazteak (15-24) . . .	1.986	45	2,3	18,4	12,5
Helduak (25-64) . . .	5.013	143	2,9	9,6	30,2
Zaharrak (65<) . . .	1.339	17	1,3	15,4	8,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.467</b>	<b>297</b>	<b>2,8</b>	<b>14,3</b>	<b>19,6</b>

(\*) Erabilera-indizea: Darabiltenak : dakitenak

Getxoko kale erabilpena horren baxua izateak, adin-taldean artean azaltzen diren aldeak oso txikiak izatea dakar. Hala ere badira puntu azpimarragarri batzuk:

- Haurrak dira euskara gehien egiten dutenak, erabilpena oso-oso baxua izan arren.
- Zaharren artean apenas dagoen euskararen presentziarik, beraiek direlarik euskara gutxien darabilen adin-taldea, eta dakitenekin konparatuta erabilera-indizeak baxuena ematen duena. Puntu hau harrigarria da, Euskal Herrian orokorrean gertatzen denaren aurkakoa baita (normalean zaharrak eta haurrak dira gehien darabiltenak).
- Gazteek helduek baino euskara gutxiago egiten dute proportzioetan, beste aldetik erabilera indizeen arabera, helduak hizkuntzarekiko askoz ere leialago agertzen dira. Ia heldu euskaldunen heren bat euskaraz ari den bitartean, gazte euskaldunen zortziren bat besterik ez da ari.

### 1.1.5.- NEURKETALDIAREN ETA ADINAREN ARABERAKO ERABILPENA

ASTEAGUNA / ORDUA	0-14 urte	15-25 urte	26-64 urte	65> urte	GUZTI- IRA
<b>ASTEAZKENA 13-15</b>					
Zenbat pertsona	327	244	638	195	1.404
Zenbat euskaraz %	9 2,8	2 0,8	18 2,8	0 0,0	29 2,1
<b>ASTEAZKENA 18-20</b>					
Zenbat pertsona	313	380	1.008	191	1.992
Zenbat euskaraz %	14 4,5	12 3,2	23 2,3	3 1,6	52 2,6
<b>LARUNBATA 11-13</b>					
Zenbat pertsona	393	285	1.046	204	1.928
Zenbat euskaraz %	23 5,9	17 6,0	47 4,5	0 0,0	87 4,5
<b>LARUNBATA 18-20</b>					
Zenbat pertsona	491	796	1.010	276	2.573
Zenbat euskaraz %	19 3,9	8 1,0	22 2,2	1 0,4	50 1,9
<b>IGANDEA 12-14</b>					
Zenbat pertsona	505	281	1.311	473	2.570
Zenbat euskaraz %	27 5,3	6 2,1	33 2,5	13 2,7	79 3,1
<b>GUZTIRA</b>					
Zenbat pertsona	2.129	1.986	5.013	1.339	10.467
Zenbat euskaraz %	92 4,3	45 2,3	143 2,9	17 1,3	297 2,8

Neurketaldiaren eragina orohar, nahikoa eskasa suertatu da hizkuntzaren erabilerari dagokionez.

Beharbada azpimarra daitekeen puntu bakarra, zaharren adin-multzoan ezik, beste guztietan erabilera-proportziorik handiena larunbat goizean gertatzen dela, da.

#### 1.1.6.- ZONALDEAREN ARABERAKO ERABILPENA

Ordena ditzagun auzoak erabilpen altuenetik baxuenera:

ANDRA MARI	7,0	
ERROMO	4,1	
-----Batezbestekoa-----	2,8	
ALGORTA 2	2,7	2,6
ALGORTA 1	2,4	
AREETA	1,0	

Erabileraren batez bestekoa muga bezala erabiliz, bi auzo dira batez bestekoaren gainetik geratzen direnak eta bi azpitik.

Andra Mari auzoaren kasuan, bi neurketalditan gertatu da gorakadarik handiena:

- Larunbat goiza (%16,1)
- Igande goiza (%7,9)

Azpimarragarria izan daiteke ere, Erromon asteazken arratsaldean lortutako kopurua (%11,4).

Hala ere, kasu bakoitzean laginak txikiak direnez, ezin daiteke esan auzo eta neurketaldi horietan euskara gehiago erabiltzen denik. Hori baieztatu ahal izateko, gutxienez, beste urte bateko neurketa beharko genuke.

### 1.1.7.- SEXUAREN ARABERAKO ERABILPENA

Sexuen arteko banaketa honela geratzen da:

	Emakumeak	Gizonak
Haurrak (0-14) . . . . .	4,0	4,7
Gazteak (15-24) . . . . .	1,7	3,1
Helduak (25-64) . . . . .	3,0	2,6
Zaharrak (65<) . . . . .	1,1	1,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>2,7</b>	<b>3,0</b>

Alde ohargarri bakarra gazteen artean gertatzen da. Mutilek neskek baino gehiago egiten dute, eta hau ez letorke bat normalean Euskal Herriko beste hainbat hiri eta udalerrri erdaldun xamarretan gertatzen denarekin (normalean neskek mutilek baino euskara gehiago egiten baitute).